

**ERABAKIA, 2022ko AZAROAREN 28koa, UPV/EHUko
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA,
IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ
PRESTATZEKO LAGUNTZEN EMAKIDA (2022) BEHIN BETIKO
EBAZTEN DUENA**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) ontzat eman ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak deialdi hau argitaratu zuen:

**IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ PRESTATZEKO
LAGUNTZA DEIALDIA (2022)**

Deialdiko 5.1 oinarriak dio zortzi kontratu eskainiko direla modalitate honetarako. Eskariak aurkezteko epearen barruan bost aurkeztu dira.

Ikusi da eskariak betetzen dituztela oinarrietan zehaztutako gutxiengo baldintzak, eta eskatzaile guztiek aurkeztu dituztela eskatutako agiriak.

Beraz, aurkeztutako eskari kopurua eskainitako kontratu kopurua baino txikiagoa denez, ez da beharrezkoa egitea eskarien ebaluazioa, laguntzak emateko hurrenkera zehazteko.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2022ko uztailaren 21ean, Ikertzaileak Erakunde eta Enpresekiko Lankidetzaz Prestatzeko Laguntza deialdia 2022.

2022ko azaroaren 9an, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behinbehineko zerrenda argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen eskaera osatugabeak edo akastunak osatzeko edo zuzentzeko.

Zuzentzeko epea amaituta, 2022ko azaroaren 25ean argitaratu zen onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda, eta ezarritako gutxiengo baldintzak bete eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu duten 3 eskaera onartu ziren.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- 2022ko azaroaren 26tik abenduaren 16era epea iriketzea, hautatutako pertsonak Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 9. oinarrian eskatutako agiriak.

Hirugarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

UPV/EHU_n AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskatzaileek jakinarazi egin beharko dute laguntza onartzen duten ala ez, mezu elektronikoko bat bidalita helbide honetara: solicitudes-pifindustrial.dgi@ehu.eus

Laguntza onartzen duten pertsona hautatu guztiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ikerketako errektoreordetzan, azaroaren 26tik abenduaren 16ra):

- a. Eskarian aipatutako doktorego programako matrikularen gordekina.
- b. Erakundeko ordezkari legalak sinatutako [hitzarmenaren](#) bi ale. Webgunean dagoen ereduan ezin da egin aldaketarik.
- c. Kasuan kasuko ikerketako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- d. Deialdian hautatutako pertsonak eta erakundeak izenpetutako kontratuaren kopia.
- e. Deialdi honen hautatutako pertsona gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendarikideek ontzat emana.

ESKATUTAKO AGIRIAK EPE BARRUAN AURKEZTEN EZ BADIRA, DIRULAGUNTZARI UKO EGITEN ZAIOLA ULERTUKO DA.

Dokumentazioa aurkezteko aukerak:

- UPV/EHUko erregistro bulegoetan (Esteka honetan kontsultatu daitezke UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistroorokorra_ordutegia).
- UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez. Ikerketaren arloko Errektoreordetza hartzaile gisa aukeratuta behar da eta eskatutako dokumentazio gehigarria erantsi (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>).
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduetako batean.

Laguntza ordaintzeko, behar bezala aurkeztu beharko dira gorago aipatu diren dokumentu guztiak. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak dokumentu horiek gainbegiratuko ditu, eta laguntza ordainduko du egiaztatu ondoren eskatzaileak eta enpresak betetzen dituztela deialdiko oinarrietan aipatutako baldintza guztiak. Kasu horretan baino ez zaio bidaliko eskatzaileari banakako ebazpena.

ERREKURTSOAK:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsu jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsu ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 123 eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua Bilboko administrazio auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioa, 2022ko azaroaren 28a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

EMANDAKO ETA UKATUTAKO LAGUNTZEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KODEA	NAN	EMAITZA
PIFIND22/01	Y8389502	UKATUTA
PIFIND22/02	45915313E	EMANDA
PIFIND22/03	78947628J	EMANDA
PIFIND22/04	45820690K	EMANDA
PIFIND22/05	G23675465	UKOA